

# Martino kardinala izango da buru Pax Romana erakundearen 60. urteurreneko hasierako ekitaldian



16-05-2007 Euskadiko (Barandiaran Kristau Elkarte) zortzi ordezkari parte hartuko dabe zapatuan Erroman hasiko diran Pax Romana erakundearen 60. urteurreneko ekitaldietan. Lehenengo saioan, erakundearen memoria eta geroa aztertuko dira eta Renato Raffaele Martino Zuzentasuna eta Bakea Aita Santuaren Kontseiluko presidentea izango da buru.

Hilaren 23an amaituko diran jardunaldiotan, besteak beste, Giza Eskubideei buruzko aparteko saioa izango da, Eugeni Gay Montalvo Espainiako Epaitegi Konstituzionaleko magistratua buru dala eta beste bat “Vatikano, beste globalizazio baten beste aurpegia: Zuzentasun eta Bakearen aldeko lana” gaiari buruzkoa, Mary Mwingira buru dala. Azkenean, audientzia orokorra izango da Aita Santuagaz San Pedro plazan.

PAX ROMANA Intelektual Katolikoek Nazioarteko Mugimendua 1947an eratu zuten, gaur egun Genevan dau egoitza eta bost kontinenteetako 80 herrialde ingurutan jarduten dau. Hasiera batean 1921ean sortu zuten Pax Romana erakundearen bi adar osagarri dagoz: ICMICA/MIIC –kideak intelektual eta profesionalen federazioak dira- eta IMCS/MIEC –Ikasle Katolikoek Nazioarteko Mugimendua-. Azken honen egoitza Parisen dago, kideak gazte ikasle federazioak dira eta JECIrekin – Nazioarteko Gazteria Ikasle Katolikoa- hartuemon estua dau.

Pax Romana ICMICA/MIIC dalakoaren Osoko Bilkura lau urtez behin batzen da eta epealdi horretarako erakundearen egitarauak jarreaz gain, Nazioarteko Kontseiluko 17 kideak aukeratzen ditu, Presidente, Presidenteordeak eta Idazkari Nagusia barru. Azken Batzar Nagusia Varsovia eta Krakovian ospatu zuten 2004ko uztailan eta hurrengoa Afrikan izango da 2008an.

Pax Romana ICMICA/MIIC erakundeak 5 presidenteorde ditu, lurralde bakoitzerako bat. Lurraldeek boluntarioen gitxieneko egitura dabe lurraldeko (kontinental) koordinazioa gauzatzeko. Gaur egun, Nairobin Afrikarako, Bangkokon Asia/Pazifikorako, Frantzia (Mesvres) Europarako, Liman Hego Amerikarako eta Karibe eta Miamin Ipar Amerikarako.

Presidente zuten Patricio Rodé uruguaiarra 2005ko azaroan hil ondoren, gaur egungoa NBEaren Jartumeko (Sudan) misino baten jarduten dauan Jean Nsonjiba Lokenga kongorria da, eta idazkari nagusia, Paul Ortega bilbotarra, Euskal Herriko UNESCO Etxea deritzaneko zuzendari ohia. Berau izango da buru barikuan hiriburu italiarrerantz abiatuko dan taldean.